

## **Printzipioa eta taktika**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-07-14: 3.

Gaur presoen arazoarekin gertatzen ari dena adibide argia da printzipioa eta taktika politikoen artean sortzen den nahastea adierazteko. Euskal presoak Espainiako gobernuari legez duten eskubide bat betetzea eskatzen ari dira urteetan: etxetik ahalik eta gertuen geratzen zaizkien presondegietan egotea, senideek bisitetarako gaur dituzten zailtasun larriak apur bat gizatartu diezaieten. Azkenean PP berriak eskuzabalarena egiterakoan legezko eta bihotzekoa ere den neurria milimetroarekin hartu dute: 546 euskal preso politikoetatik 32 nahierara izan dira hautatuak, eta ez Euskal Herrirako, baina, tira, auzo urruneko Avila, Burgos, El Dueso, Huesca, Leon, Palencia, Soria, Topas, Valladolid, Villabona eta Zaragozara bidaltzeko. Lehen batez beste 700 km-ra zeuzkaten batzuk, fisikoki distantzia erdira daude orain. Irabazia ez da hutsa, baina ez da konfiantza. Eta zifra orokorretan jarrita, 546 zirenak orain 514 preso geratzen dira lehen bezain urrun, eta jasotako mesedetik at geratu direnen senideek lehengo borrokan jarraitzeko arrazoiak osorik dituzte oraindik berekin.